



Proiektu zbk.: 2016/4
Enpresa: **ZABALGARBI**

Huts altuko sistema bat instalatzea xurgatze zentralizatuko sare baten bitartez garbitze lanak egin ahal izateko

Helburua eta aurkezpena: garbiketako langileen baldintzak hobetzea, arrisku ergonomikoak eta hauts eta hondakin finekiko esposizio-denbora gutxituz (gertatutako istripuen % 36 ahalegin gehiegizkoen ondorioz, eta % 9 substantzia kaltegarrien ondorioz). Lantoki osoko garbiketa orokorrari laguntzeko sistema modernoa eta integratzailea instalatzen ari dira, langileen eraginkortasuna eta lan-jarduneko baldintzak hobetuko dituen eta etorkizunean garatzeko gaitasunak izango dituen. Proiektuaren barruan daude: huts altuko unitatea, deskargatze automatikoko iragazkia, xurgatze hodien eta hartuneen sarea. Proiektuko kalkuluen arabera, 2 langile aritu ahal izango dira aldi berean xurgatzen, 63 mm diametroko eta 10 m luzeko mahukekin, 76 mm diametroko hartuneetara konektatuta, emari eta huts handiagoa bermatuz; ondorioz, xurgatzeko potentzia eta bizkortasun handiagoa lortzen da.

Egindako hobekuntzak: lan-baldintzak hobetzea.



Bereizgarriak: hautsa iragaztea: huts altuko instalazioak hautsa bereizteko eta iragazteko ekipoa izango luke, iragazkiak garbitzeko sistema automatikoarekin; sistemak iragazkien kargaren galtze-maila egonkor bat bermatuko du. Iragazkiek efizientzia-maila handia dutenez, aire araztua laneko eremura itzularazi daiteke.